



PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

ZENTRUA	CPED KIROLENE KIIP		
GRADUA	ERDI MAILAKOA	ZIKLOA / MAILA	1
MODULUA	URPEKO GIDATZEA		

HELBURUAK	CONTENIDOS
<p>Modulu honek behar adina formazio emango dio ikasleari kapaz izan dadin urpekari talde baten urperaldia gidatzeko eta kontrolatzeko gidatze edo ezagutze jarduera batean, segurtasun protokoloak aplikatuz eta urpekari batek zailtasunak izatekotan, lagunduz.</p> <p>A) Eskafandra autonomoa (SBA), eta/edo sistema erdi-autonomoa (SBSA) erabiltzen den kirol urpekaritzako urperaldi batean teknika propikoak aplikatzea, airea edo nitrox arnasten, gehienez 5 atmosferako presioarekin, eta segurtasun nahikoarekin, urpeko kirolaria lagundu eta larrialdi kasuetan salbatzeko.</p> <p>B) Gidatze jarduera batean parte hartzen duten urpekarien prestakuntza eta esperientzia maila aztertzea, urpekariak aurkeztutako dokumentazioetatik eta beste behaketa batzuetatik informazioa jasoz, taldeak eta bikoteak ezartzeko edo urperaldia beren zailtasun mailakoa ez bada aholkatzeko.</p> <p>C) Aukeratzea eta adieraztea kirol urpekaritzako gidatze teknikak, aurreikusitako ibilbidea jarraituz, segurtasun arauak eta ingurumena babesteko arauak betez eta ustezko kontingentzia ebatziz, urpekari guztiak uretatik kalterik gabe eta pozik irtetzeko.</p> <p>D) Kirol urpekaritzako ezagutza jardueretan, kontrol teknikak aplikatzea partaide baten aurrerapena aztertzeko, ezarritako prozedurak jarraituz, parte-hartzailearen egoeraren behaketak eginez eta murgiltzeko ezarritako parametroak eta egoera okerrak zuzenduz esperientzia atsegina eta ziurra izan dadin.</p> <p>E) Deskribatzea eta proposatzea egoera gatazkatsuak egon daitezkeen kirol urpekaritzako aurkikuntza edo gidatzeko jarduerak eta bere irtenbideak, sailkatuz eta</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Urpekariak zuzentzen eta kontrolatzen ditu gidatze eta aurkikuntza jardueretan, ezarritako teknikak eta protokoloak aplikatuz.2. Lasaitasuna eta gozamina igortzen ditu urpekaritzako gidatze eta aurkikuntza jardueretan, ingurumen baldintzen ondorioak identifikatuz eta jokaera desegokiak babesteko eta zuzentzeko estrategiak aplikatuz.3. Urpeko mantentze fisiko eta teknikoaren gidako programak jarraitzen ditu, horiek gauzatzeko helburuak eta baldintzak identifikatuz.4. Ur azpian zein ur azalean gertatutako zailtasun batean ezarritako teknika eta protokoloak aplikatuz laguntzen du.



ezarritako gomendioak aplikatuz, antolatzailearen eta partaideen arteko harreman ona mantentzeko.

F) Baloreak eta jarrerak eskuratzeko prozesuaren ezaugarriak identifikatzea eta deskribatzea kirolariengan eragiten dituzten efektuak kontuan hartuz eta argudiatuz, adiskidetasuna transmititzeko, ingurumenaren kontserbazio beharra eta norberaren gorputzaren errespetua, portaera etiko pertsonalaren bidez

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikasleak hurrengo elementuak nahiko ondo ezagutu beharko ditu:

- a) Muga fisikoak eta sentsorialak urpekaritzaren praktikarako, beharrezko laguntzak.
- b) Segurtasun bikoteak osatzeko irizpideak.
- c) Uretara sartzerako momentuan urpekariei eman beharreko informazioa.
- d) Urpekari talde baten gidapenerako teknikak, bete beharreko kontrolak.
- e) Ibilbidea.
- f) Urpekariak multzokatzea.
- g) Denbora.
- h) Gehienezko sakonera.
- i) Botilen presioa.
- j) Ezagutza ekintzarako sarrera azalpena.
- k) Teknikariaren jokabidea ezagutza ekintzaren etapa desberdinetan.
- l) Ezagutza ekintzan zehar kontrolak
- m) Ibilbidea.
- n) Erosotasuna.
- o) Lasaitasuna.
- p) Botilaren presioa.
- q) Kirolariaren flotagarritasuna.
- r) Estutasuna, estresa eta ikara urpekaritzan.
- s) Laguntza psikologikoko teknikak urpekarientzat.
- t) Ingurumen baldintzak eta urpekarieren erosotasuna.
- u) Zelan lasaitu urpekaria urperaldia baino lehen eta bitartean.
- v) Jarrera ausartak, ilegalak eta patologikoak urpekaritzan.
- w) Urpeko gidariaren mantenu programako erresistentzia eta indar-erresistentziaren helburu fisikoak.
- x) Urpeko gidariaren mantenu programako helburu teknikoak.
- y) Urpeko gidaren egoera fisikoaren mantenu programak.
- z) Erresistentzia eta indar-erresistentziaren oinarrizko gaitasunen entrenamendu sistema.
- aa) Urpekaritza gidari baten urpekaritza teknikorako mantenu programak.
- bb) Urpekari batek laguntza behar duen egoera mota identifikatu: aire falta, egoera fisiko txarra, nahaste eta zorabio egoerak, larritasun, estutasun eta ikara egoerak, konortea galdu, konbultsio hiperoxikoak, itotzea.
- cc) Egoera hauetan jokatzeko prozedura espezifikoak. Nola jokatzeko sekuentzia:
- dd) Ezagutu.
- ee) Harremanetan jarri.
- ff) Plangintza egin.
- gg) Komunikatu.
- hh) Parte hartu.
- ii) Teknikariaren jarrera. Jokaeraren jarraibideak noraezean egoterakoan.
- jj) Laguntza behar duen urpekaria itsas azalera igotzeko kontrol teknikak.
- kk) Laguntza behar duen urpekaria itsas azaletik lekualdatzeko teknikak.
- ll) Laguntza behar duen urpekaria itsasontzi edo plataformara igotzeko erabili beharko jasotze-teknikak.



mm) Laguntza eskaera.
nn) Istripu informeak.

EDUKIEN SEKUENTZIA:

Irakasgaia betetzen duten gaiak orden sekuentzialean banatuko dira, 1etik 4ra..

UNITATE DIDAKTIKOAK	HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
UD Nº 1 11 ordu aurrez aurreko. Ezagutza eta gidatze jardueretan parte hartzen duten urpekariak gidatu eta kontrolatzen ditu, ezarritako protokolo tekniak aplikatuz eta identifikatuz.	A, B, C, D, E, F.	1	a, b, c, d, e, f, g,h, l, j, k, l, m, n, o, p, q.
UD Nº 2 10 ordu aurrez aurreko. Lasaitasuna eta gozamina transmititzen du urpekaritzako gidatze eta ezagutza jardueretan, ingurumen egoeraren efektuak identifikatuz, eta jokaera desegokiak zuzentzeko estrategia laguntzaileak aplikatuz.	A, B, C, D, E, F.	2	r, s, t, u, v.
UD Nº 3 3 ordu aurrez aurreko. Mantenu fisikoko eta urpeko gidari teknikariaren programak jarraitzen ditu, hauen helburuak eta egite baldintzak identifikatuz.	A, B, C, D, E, F.	3	w, x, y,z aa.
UD Nº 4 11 ordu aurrez aurreko. Urpekari bat laguntzen du urpean zein ur-azalean zailtasunak izan ezker, ezarritako protokoloa eta teknikak aplikatuz.	A, B, C, D, E, F.	4	bb, cc, dd, ee, ff, gg, hh, ii, jj, kk, ll, mm, nn.



METODOLOGIA:

- **Ikuspegi didaktikoa**

Programazio honetan proposatzen den metodologia didaktikoa sorkuntza ikuspegi batean oinarritzen da, modu honetan, ikasleek osatuko dute ikasketa prozesua. Horretarako, ikasleen aurre jakintza kontuan hartu behar da estrategia gogotsuak eta parte-hartzaileak eginez; **non ikasleak ikastaldiaren protagonistak** diren, eta ez elementu pasiboak; eta non **irakasleak orientatzaile, sustatzaile eta bideratzaile** papera beteko duen ikaslearen lehiaren garapenerako; konfiantza giro bat sortuz ikasleen parte-hartzerako eta **motibaziorako**. Helburu nagusia ikaslea, progresiboki, bere ikasketa propioen kudeatzailea bihurtzea izango da.

Talde lanen dinamika, ikasleak tamaina desberdinetako taldeetan sailkatuz burutuko den jardueraren arabera, eta IKT-en erabilera, metodo honen bi pilare izango dira, gaitasun sozial eta zibikoak zein digitalak indartuz. “Moodle” plataforma hezigarria erabiliko dugu, non, honi esker, ikasleek aurkezpen digitalak, protokoloak, multimedia materiala eta ekintzetarako web orri nagusietarako estekak izango dituzte. Horretaz gain, ariketa interaktiboen ebazpenak eta zereginen entregak egiteko baliabidea izango da. Lehenetsunetako bat, ikasleak **ikasketa esanguratsu** bat eskuratzea da, ikasitakoa ulertuz (esanahia erantsiz), ikasgela barruko zein kanpoko egoeretan aplikatzeko gai izatea (jakintza **emangarria**), eta beren inguru sozial eta profesionalarekin (jakintza **gaitasuna**) lotzea. Hala eta guztiz, ezin dugu oroimenezko-ikasketa guztiz baztertu, beharrezkoa izaten jarraituko duela momentu zehatzetan, gertaera eta datuen ikasketarako, esaterako.

- **Teknika metodologikoak**

Lehen azaldutako ikuspegi didaktikoa burutzeko, teknika eta estrategia metodologiko dauk erabiliko ditugu:

- **Azalpen metodoa:** Irakasle zein ikasleek, aurkezpen digital baten proiektzioaren (PPT) laguntzaren bidez.
- **Erakustaldi/Modelizazio:** irakasle, ikasle edo aditu batek eginda.
- **Praktika bideratua:** non ikasleak, irakasleak egindako eta bideratutako prozedura bat errepikatuko duen. Irakasleak zuzenketak, gogoetak, ebaluazioa... egingo ditu.
- **Praktika autonomoa:** Ikaslearen parte-hartzea autonomia eskuratzeko eta irakaslearen behaketa baloraziorako.
- **Ideia-jasa:** Iritzia emateko askatasuna sustatzeko inguru bat izateko eta edukiak lantzeko ikuspegi berriak sortzeko.
- **Mahai-inguru:** Christopher Laudell-ek Harvard Unibertsitatean, 1870ean, sortutako teknika da. M.L. Fabraren hitzetan, talde edo azpitaldeetan egoera erreal edo alegiazko bat aztertzean eta ebazpena aurkitzean datza. Metodo honek aurkikuntzaren bidezko ikasketan laguntzen du. Zentzu honetan, Winston Churchill-ek uste zuen “gure zeregina da besteen esperientziatik ikastea, zeren eta gureak askoz zailagoa da eta askotan beranduegi heltzen da”.



EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Orokorrean, ebaluazio tresnak hau dira:

- o Asistentzia kontrola kalifikazio irizpideak jarraituz.
- o Azterketa idatzia, konbinatua edo bakarkako zein taldeko lanengatik ordezkaturia.
- o Praktikotasunezko suposizioen ebazpen-azalpena.

KALIFIKAZIOAK:

Derrigorrezko asistentzia: Gutxieneko asistentzia %90ekoa izan behar da. %75-%90 bitartean daudenek errekeratze aukera izango dute lan osagarrien bidez. %75etik beherakoak, ordea, bigarren deialdira aurkeztu beharko dira asistentziak betez ez-ohiko deialdian ebaluatuak izateko.

Lanak eta azterketak: nota orokorraren %50a.

Praktikotasunezko suposizioen ebazpen-azalpena eta erronken lorpena: nota orokorraren %30a.

Ahozko proba. Erronken defentsa orala: nota orokorraren %20a.

Modulu hau ohiko deialdian (jarraian) gainditzeko, beharrezkoa da ebaluazio irizpideetan ageri diren atal guztietan 5 puntu edo gehiagoko kalifikazioa izatea, eta asistentziak betetzea.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK:

Kalifikazioei begirako atal baten hausteak ohiko deialdian modulua ez gainditzea esan nahi du, hau gainditzeko bigarren deialdi ez-ohiko batera joateko beharraz. Ohiko deialdian ez gainditzearen arrazoia agertze falta izango balitz, hauek berreskuratu beharko liriateke ez-ohiko deialdia baino lehenago, ohikoaren baldintza berberetan.

Ez gainditzearen arrazoia aurreko atalen bat izango balitz, irakasleak txartzat adierazitako alderdiak errepikatu edo eraldatu beharko ditu

Irakasgai hau (beste batzuk bezala) gaindituta egon behar da heziketa praktikoa hasi baino lehen.

OHARRAK